



2010EKO UZTAILAREN 14KO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamarreko uztailaren hamalauan, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Xanet Barreras Jauregi eta Iñaki Saldaña Herrero.

Felix Urkola Iriarte eta Amagoia Naldaiz Mingo zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztzen da 2010eko ekainaren 9an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2010eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 6 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, EHUN ETA HOGEITA HAMAR MILA HIRUREHUN ETA SEI EURO eta HOGEITA HAMABOST ZENTIMO (130.306,35 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 09-011-005 zbk.dun esped.: zerbitzua handitzea, astean 10 ordutik 15 ordura. Onuradunaren aportazioa zerbitzu kostuaren %15 da.

- 671.1 zbk.dun esped.: zerbitzutik baja ematea 2010eko maiatzaren 27an, heriotzagatik.

- 10-11-006 zbk.dun esped.: zerbitzuan alta ematea 2010eko maiatzaren 27ean hasita, astelehenetik larunbatera egunero ordu bete. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %8 izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 615 zbk.dun esped.: baja ematea ekainetik aurrera, elkarbizitza unitatean aldaketak egon direlako.



- 09-01-004 zbk.dun esped.: laguntza, uztailean, badaezpada bertan behera uztea diru-sarreretan aldaketak egon direla eta.

- 825 zbk.dun esped.: alokairurako laguntza apiriletik aldatzea 320 €ra.

Udal tasak ordaintzeko laguntzak.-

2009 urteko udal tasen arloko laguntzen inguruan eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, udalak daukan ordenantzaren aplikazioz, honako erabakiak hartzen ditu:

1.- Ondorengo dirulaguntzak onartzea:

IZEN ABIZENAK	EHUNEKOA	DIRULAGUNTZA
ESP.ZBK. 3	% 100	232,82 €
ESP.ZBK. 2	% 75	145,65 €
ESP.ZBK. 10	% 100	73,16 €
ESP.ZBK. 6	% 50	75,56 €
ESP.ZBK. 9	% 50	98,18 €
ESP.ZBK. 4	% 100	143,99 €
ESP.ZBK. 1	% 75	94,60 €
ESP.ZBK. 5	% 75	90,66 €
GUZTIRA		954,62 €

2.- Beste ondorengo hauei, dirusarrerak gainditzeagatik, dirulaguntza ukatzea: 18, 7 eta 11 zbk.dun espedientei.

IV.- KULTURA ETA EUSKARAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kultura eta Euskara Batzordetik jasotako proposamenak ikusi eta aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, honako erabaki hauek hartzen ditu:

HITZari dirulaguntza.-

GOIEKiren bidez HITZarekin izenpetutako hitzarmenean oinarrituz, hau da, urtean biztanleko 2€ko dirulaguntza ematearena, HITZari, 2010 ekitaldiari dagokionean, HAMAR MILA ZAZPIEHUN ETA ZORTZI (10.708 €) EUROko dirulaguntza ematea eta orain erdia ordaintzearen proposamena egin du Kultura batzordeburuak.

Tokiko Gobernu Batzarrak proposamena onartzea erabakitzen du.

Oin Arin dantza taldea eta Goierriko Bertso Eskolari dirulaguntzak.-

2010eko kultura taldeentzat aurrikusitako dirulaguntzen barruan, Oin Arin dantza taldearentzat 4.500 € aurrikusten dira eta erdia aurreratzea proposatzen da, hau da, bi mila berrehun eta berrogeita hamar euro (2.250 €), eta Bertso Eskolari mila ehun eta hogeita euro (1.120 €) ematea.

Tokiko Gobernu Batzarrak proposamena onartzea erabakitzen du.

Orobione eta Kantaka Abesbatzari dirulaguntzak.-



2010eko kultura taldeentzat aurrikusitako dirulaguntzen barruan, Orobione Abesbatzari mila euroko (1.000 €) dirulaguntza eta Kantaka Abebatzari mila lauhun eta hoge euroko (1.420 €) dirulaguntza ematea proposatzen da.

Tokiko Gobernu Batzarrak proposamena onartzea erabakitzen du.

Gerriko Ikerlan Beka.-

2010eko Gerriko Ikerlan Bekaren gastuak ordaintzeko bi mila eta bostehun euro (2.500 €) ko dirulaguntza ematea proposatzen da.

Tokiko Gobernu Batzarrak proposamena onartzea erabakitzen du.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko bost eta erdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

